

5/24

irizpena

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duen

dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2024ko martxoaren 5a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazerarako Batzordea

Irizpena 5/24

I.- AURREKARIAK

2024ko otsailaren 13an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren idazki bat sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, "Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duen dekretu-proiektuari" buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Arauaren xedea da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 61.4 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta laguntza hori emateko betekizunak eta baldintzak eta prozedura zehaztea ere.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Batzordearen osoko bilkurako kide guztiei, beren proposamenak eta iritzia bidal zitzaizkien eta zegokion Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. 2024ko otsailaren 29an, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Batzordearen martxoaren 5eko osoko bilkurara eramateko; han aho batez onartu zen.

II.- EDUKIA

Dekretu-proiektuak azalpen-zatia eta xedapen-zatia ditu, eta 14 artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen.

Dekretu-proiektuaren azalpen-zatian aipatzen den bezala, ez da laburra izan seme-alaba adingabeak laguntza eta babes osoa behar duten amen aurkako indarkeriaren zuzeneko biktima gisa aitortzeko bidea.

Azken urteotan, ikuspegiaren aldaketak, amen aurka erabilitako indarkeriaren lekuko soiltzat jotzetik indarkeria horren zuzeneko biktimatzat jotzera izandako aldaketak, lege-aurrerapenak ekarri ditu.

Funtsean, amen aurka erabilitako indarkeriaren zuzeneko biktima gisa aitortzeak indarkeria horrek eragiten diela onartzetik abiatzen da, haien ongizate emozionala zein garapen pertsonala baldintzatuz.

Umezurtz horiek bizitza osoa askatasun- eta berdintasun-baldintzetan garatzeko aukera izan dezaten, ezinbestekoa da amen heriotzaren ondorioz jasandako eta areagotutako indarkeriak eragin dien ahultasun-egoera gainditzea eta, ahal den neurrian, konpontzea.

Seme-alaba umezurtz horien babesa lehentasunezko betebeharra da botere publikoentzat, Espainiako Konstituzioaren 39. artikuluan aitortua, eta haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurkako borroka giza eskubideen betebeharra da. Hala, 1/2004 Lege Organikoaren zioen azalpenarekin bat etorriz, "*Botere publikoek ezin dute ezikusiarrena egin genero-indarkeriaren auzian, indarkeria hori baita gure Konstituzioaren oinarriko eskubideen aurka (askatasuna, berdintasuna, bizitza, segurtasuna eta diskriminaziorik eza) egiten den eraso nabarmenetako bat. Botere publiko horiek berek, Konstituzioaren 9.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ekintza positiboko neurriak ezartzeko betebeharra dute, eskubide horiek benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen, betiere horien osotasuna eragozten edo zailtzen duten oztopoak kenduz*".

Emakumearen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurrea hartzeko eta aurre egiteko Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 11ko Hitzarmenak, Espainian 2014an berretsiak, emakumearen aurkako indarkeriaren biktima guztiak babesteko esparru orokor bat ezartzen du, ikuspegi integratzaile batetik, indarkeria horren biktimen seme-alabak barne.

Bestalde, 2017ko irailean sinatutako Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunak berariaz jasotzen ditu 4. ardatzean adingabeen laguntza eta babesa areagotzeko neurriak.

Hona hemen neurrien hobekuntza islatzen duten araudietako batzuk: ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babestekoa; martxoaren 1eko 3/2019 Legea, genero-indarkeriaren eta emakumearen aurkako beste indarkeria mota batzuen biktimen seme-alaben umezurtz-egoera hobetzekoa; edo martxoaren 21eko 2/2022 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren biktima diren umezurtzen babesa hobetzekoa.

Bestalde, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1 artikulua, Espainiako Konstituzioan xedatutakora joz, berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ez izateko eskubidea aldarrikatzen du, eta, esparru horretan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak (aurrerantzean, Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen Testu Bategina) lehentasunezko helburutzat ezartzen du haur eta nerabeei babes handiagoa eskaintzea, eta administrazio publikoek biktima horiei egokitutako neurri edo zerbitzuak bermatzeko betebeharra ezartzen du.

Adingabeak eta, zehazki, adingabe umezurtzak babesteko neurri horien artean dago emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima izan diren seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 61.4 b) artikuluan aurreikusitakoa.

Dekretu honek erregelamendu bidez garatzen du 61.4 b) artikuluan jasotako aurreikuspena.

Dirulaguntza hori 18 urte bete arte emango da, baldin eta eskaera egiten den unean Euskal Autonomia Erkidegoan bizi eta errolatuta egoteko baldintza betetzen bada, bai eta baliatzen den aldi osoan ere, eta urtero ordainduko da. Era berean, kalteberatasun handieneko kolektiboentzat, hau da, % 33ko edo hortik gorako mendetasuna edo desgaitasuna aitortuta duten umezurtzentzat, laguntza 25 urte bete arte jasotzeko aukera aurreikusten da, edo gehieneko adin horretara arte jasotzeko aukera ikasketa akademikoak edo heziketa arautuak egiten dituztenentzat.

Halaber, aurreikusten da onuradunak salbuetsita geratuko direla zerga-betebeharrak eta Segurtasunekoak egunean betetzeko baldintza betetzetik, gizarte-arrazoia direla eta.

Azken batean, dekretu hau beste urrats bat da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen umezurtz diren seme-alaba adingabeei laguntza eta babesa emateko; hala, araudia kokatu beharra dago honako ekintza-eremu honetan: emakumeen aurkako indarkeriaren lehen mailako gizarte-arazo honek hainbeste kaltetu duen kolektibo horren alde hainbat arlotan aurreikusi diren hobekuntza-neurrien ekintza-eremuan, alegia.

Xedapen-zatia

1. artikulua.– Xedea eta helburua

2. artikulua.– Kontzeptuak
3. artikulua.– Onuradunak
4. artikulua.– Laguntzaren iraupena
5. artikulua.– Zenbatekoa zehaztea
6. artikulua.– Prozedura
7. artikulua.– Eskaera zuzendu eta hobetzea
8. artikulua.– Prozedura ebatzea
9. artikulua.– Baldintzak egiaztatzea
10. artikulua.– Laguntza ordaintzea
11. artikulua.– Onuradunen betebeharrak
12. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzultzeak
13. artikulua.– Dirulaguntzaren bateragarritasuna
14. artikulua.– Baliabide ekonomikoak

XEDAPEN GEHIGARRIA. – Zuzeneko ekintza

XEDAPEN IRAGANKORRA. – Ordainketa bakarreko laguntza berezia.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA. – Erregelamendu bidez garatzea

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA. – Indarrean jartzea

III.- GOGOETA OROKORRAK

Batzorde honek positibotzat jotzen du "Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duen dekretu-proiektua", bai eta haren edukia ere; izan ere, jaso dugun bezala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 61.4 b) artikuluan jasotako aurreikuspena garatzen du, eta horretarako betekizunak eta baldintzak zehazten ditu, baita hura emateko prozedura ere.

Bereziki, modu positiboan balioesten dira ezarritako adin-tarteak eta 25 urtera arte luzatzeko aukera, mendetasuna edo desgaitasuna duten seme-alaba umezurtzentzat, edo ikasketa akademikoak edo prestakuntza-ikasketa aratuak egiten dituztenentzat; halaber, laguntza eskuratzeko edo laguntza horri eusteko baldintza jakin batzuk salbuestea aurreikusten da, hala nola benetako egoitzaren ezarpena Euskal Autonomia Erkidegotik (EAE) kanpo ikasten egonez gero edo zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearena; hala, neurri horiek ezarrita bermatzen da laguntzak egoera kalteberan eta zaurgarrian dauden kolektiboari iritsiko zaizkiela.

Hala ere, gure ustez, faltan sumatzen da indarkeria matxistaren definizioa, eta argitu behar da definizio hori bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriara mugatzen den ala ez. Mugatuta geratuz gero, laguntzaren jarduketa-eremua familia barruko indarkeriak eragindako zurtasun-kasuetara zabaltzeko aukera gal liteke (izan ere, zenbaitetan horrek indarkeria matxistaren jarraibideei

erantzuten die, hala nola semeak amari eragindako indarkeria).

Beste alde batetik, eta neurriak dakarren gastuari dagokionez, kontsulta-organo honek jasota utzi nahi du memoria ekonomikoak hura kalkulatzeko zaila dela aipatzen duen arren, gure ustez posible eta desiragarria dela laguntzen kostuaren proiektioak edo aurreikuspenak egitea, Administrazioak 2003tik genero-indarkeriaren edo indarkeria matxistaren arloko datuak baititu.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

1. artikulua. Xedea eta helburua

Lehenik eta behin, eta gogoeta orokorretan aipatutakoaren ildotik, beharrezkotzat jotzen dugu argitzea zer ulertzen den indarkeria matxistatza eta nortzuk diren indarkeria matxistaren biktimak.

Eta bigarrenik, uste dugu argi geratu beharko litzatekeela amen heriotzak eragindako kaltearen erreparazioa (1.2. artikulua) ez duela arazorik sortzen beste kalte-ordain batzuk jasotzeko eskubidea izanez gero, eta hori gure Zuzenbidean kalte beragatik bi aldiz ordaintzeko debekua dagoelako.

5. artikulua. Zenbatekoa zehaztea

3. puntuak *"ahalmena ematen dio gizarte-gaietan eskumena duen saileko titularrari zenbatekoa aldatzeko, ekonomiaren bilakaerak, urteko zenbatekoaren kalkulua aldatzea edo eguneratzea eragin dezaketen arrazoi sozialek, ekonomikoek edo bestelakoek eraginda"*.

Gure ustez, argi eta garbi geratu beharko litzateke aldaketa ezin dela beherantz egin, are gutxiago aurrekontu-arrazoiengatik.

Zehaztugabetasun juridikoa 3., 6., 9. eta 10. artikuluetan azpimarratutako kontzeptu hauetan.

- 3.3 artikuluan honako hau aipatzen da: *"Amaren heriotzaren erantzuletzat jotzen diren seme-alaba umezurtzek ezin izango dute dirulaguntza jaso"*.
- 6.1 artikuluan honako hau ezartzen da: *"Prozedura alderdi batek eskatuta hasiko da, interesdunak berak (jarduteko gaitasuna badu) edo haren legezko ordezkariak aurkeztutako eskaeraren bidez, hargatik eragotzi gabe Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako borondatezko ordezkariak. Amaren heriotzaren kausatzaileak ezin izango du, inola ere, interesdunaren izenean eskabidea aurkeztu"*.
- 9.4 artikuluan honako hau aipatzen da: *"Organo kudeatzaileak jakiten badu ebazpen judizialen batean arrazoizko zantzuak daudela ikertutako onuraduna amaren heriotzaren erantzule izan daitekeela, kautelaz etengo du emandako laguntzaren ordainketa, horren berri izan duen urteko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin"*.
- 10.3 artikuluan honako hau ezartzen da: *"Dirulaguntza ezin izango du eman laguntza sorrarazi duen egitatearen egileak edo indutzaileak"*.

Batzordearen iritziz, lau kasuetan bateratu egin beharko litzateke esamoldea, eta azpimarratutakoaren ordeza aipamen bat egin beharko litzateke, argi utziz laguntzatik kanpo geratzen dela amaren heriotzan edozein parte-hartze maila penala duen edonor.

V.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da "Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duen dekretu-proiektua" izapidetzea, kontsulta-organo honek egindako gogoetak aintzat hartuz

Bilbon, 2024ko martxoaren 5ean

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondo Sarria